

Berrigara

BERGARA / Egubakoitza / 2005eko irailaren 2a

637. zenbakia

JAIK/ Barazki, fruitu, gazta eta lore moztuen lehiaketa hilaren 10ean izango da

San Martinak: danborraden entseguak hurrengo astean

EDU MENDIBIL

San Martin jaietako egitaraua gertu dago dagoeneko. Hurrengo astean hasiko dira ekitaldiak eta hilaren 18ra arte izango da jaietan murgiltzeko aukera. Bestalde, haur eta nagusien danborradetan parte hartuko dutenak entseguetan dira jadanik.

Udaleko Kultura Zerbitzuak gogorazi duenez, San Martinetako danborradetan parte hartuko duten haur eta nagusiek entseguetan jarraituko dute hurrengo astean: haurren entseguak hilaren 4an, 8an, 9an, 10ean eta 11n

izango dira Seminarioko patioan, 19:00etatik 20:00etara. Nagusien danborradarako entseguak egun berdinetan dira, Seminarioan baita, 20:00etatik 21:00etara.

FERIA, HURRENGO ZAPATUAN

Bestalde, San Martin jaietako ekitaldiak zehaztuta daude dagoeneko. Hurrengo egubakoitzean, hilaren 9an, Moises Azpiazu dantza askatuko txapelketaren XXI. ekitaldia jokatu da Udal Pilotalekuan, 19:30ean.

Larunbatean, berriz, hilaren 10ean, barazki, fruitu, gazta eta lore moztuen lehiaketa izango da. Odolosten dastatzea ere egingo da goizean, San Martin plazan.

TXOSNA ETA TABERNA

Hurrengo aste bukaerako ekitaldien ondoren, San Martin bezpera, ohikoa denez, nagusien danborrada egingo da 22:30ean. Jarraian, Gaubela taldeak alaituko du dantzaldia.

HAURREN DANBORRADA

San Martin egunean, berriz, sokamuturra izango da 09:00etan, 11:00etan Meza Nagusia izango da San Pedron, 18:00etan haurren danborrada eta 19:30ean kale antzerkia Trapu Zaharra taldearekin. Suzko erruberak 22:30ean izango dira. Irailaren 17 eta 18rako ere beste hainbat ekitaldi iragarri dituzte.



Haurren danborrada San Martin egunean, hilaren 16an, izango da.

BERRIGARA



Turismo Bulegoa, zabalik oraindik

Abuztuko oporrak amaitu arren, Udaleko Turismo Bulegoa irailaren 30era arte izango da zabalik. Astelehenetik larunbatera 10:30etik 14:00etara eta 16:30etik 19:30era izango da zabalik. Domeka eta jai egunetan, berriz, 11:30etik 14:30era. Besteak beste, bisita gidatuak egiteko aukera eskaintzen du Turismo Bulegoak. Interesatuak 943 77 91 28 telefono zenbakira deitu dezakete argibide eske.

LABUR

1948an jaiotako bergararrek afaria egingo dute datorren urriaren 1ean

1948an jaiotako bergararrek urteko ospakizuna egingo dute datorren urriaren 1ean. Zabala jatetxean elkartuko dira afaltzeko. Izenematea (47 euro) Euskadiko Kutxan zabalduko kontuan egin daiteke. Afarira joateko autobusa aterako da frontoitik, 21:00etan.

Helduen Eskolan matrikula egiteko epea irailaren 13ra arte izango da zabalik

Helduen Eskolan matrikula epea irailaren 13ra arte dago zabalik, aste barruan 10:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara, Irizar jauregian. DBH, ingelesa, euskara, unibertsitaterako sarrera edota atzeritarrei zuzendutako gaztelera eskolak eskaintzen dituzte. Argibideak 943 76 44 52 telefono zenbakian.



TELEFONO ZENBAKI BERRIA DUGU BERRIGARAN:

943 25 05 02

EUSKARA/ Udaleko Euskara batzordeak, Jardunek, Udal Euskaltegiak eta AEK-k diptikoak banatuko dituzte

Herritarrek euskara ikasi edo euskara maila hobetzeko kanpaina abian jarri dute

E.M.

Udaleko Euskara batzordeak, Jardun Euskara Elkarteak, Udal Euskaltegiak eta Akulu-AEK euskaltegiak diptiko bat prestatu dute, herritarrek euskara ikastera eta dakiguna hobetzera eta erabiltzera animatuaz. Etkez etxe zabalduko dute diptikoa.

Diptikoa postaz iritsiko da etxe guztietara. Esan bezala, herritarrek euskara ikastera edo euskara maila hobetzera animatzea da helburua. Bide batez, herritarrek euskara erabiltzera gonbidatu nahi dituzte. Diptikoan ondorengo mezua nabarmendu dute: *Merezi du. Ikasi erabiltzeko eta erabili ikasteko.*

LAU ERAKUNDE ELKARLANEAN

Euskara ikasi edo hobetzeko aukera eskaintzen duten erakundeekin harremanetan jartzeko informazioa jasotzen da diptikoan. Kanpainan parte hartu duten lau erakundeek euskararen erabilera bultzatzeko ekimenak abian jarri dituzte azken urtean.



Kanpainaren bultzatzaileak, etkez etxe banatuko duten diptikoaren aurkezpenean.

LABUR


Begirale lan-poltsa osatu nahi du Jardun elkarteak

Bergarako Jardun elkarteak 2005/06 ikasturterako begirale lan-poltsa osatu nahi du, aste bukaeretan lan egiteko. Beharrezkoa izango da euskaraz ongi jakitea eta, horrez gain, begirale titulua edukitzea, ikasketak eta esperientzia baloratuko dituzte.

Izenematea irailaren 12ra arte izango da zabalik. Interesatuok ondoko helbidera bidali dezakezue curriculuma. Jardun elkarteak. Errotalde jauregia z/g (Kultura etxea) 20570 Bergara.

Musika Eskolan eskolak hasiko dira eguaztenean

Bergarako Musika Eskolak aditzera eman duenez, eguaztenean, hilaren 7an, eskolak hasiko dituzte. Bezperan, hilaren 6an, instrumentuetako ordutegia eskuragarri izango dute ikasleek. Klaseetako zerrendak eta ordutegiak Musika Eskolan daude. Edozein argibidetarako 943 76 57 80 telefonora jo dezakezue.



Kirol Elkartea

KIROL ELKARTEA

Boni Laskurain 3 behea
Tel.: 943 76 35 71 20570 BERGARA

Ordutegiak eta jarduerak

Ordua	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
7,30		Sasoian egoteko gimnasia		Body-gima	
8,00	Stepa		Aerobika		Stepa
8,15		PILATES		Body-gima	
9,00	STEPSA	SASOIAN EGOTEKO GIMNASIA	AEROBIKA	SASOIAN EGOTEKO GIMNASIA	STEPSA
10,00	Aitonak	SPINNINGA	Aitonak	SPINNINGA	Aitonak
13,00	INDOOR ZIKLOA		INDOOR ZIKLOA		INDOOR ZIKLOA
14,30	PILATES				PILATES
15,00		Sasoian egoteko gimnasia		Sasoian egoteko gimnasia	
16,00	INDOOR ZIKLOA	TAI-CHIA	INDOOR ZIKLOA	TAI-CHIA	INDOOR ZIKLOA
17,00	STEPSA	PILATES	STEPSA	PILATES	STEPSA
18,00	Infantil mailako karatea	Aerobika-Stepa	Infantil mailako karatea	Stepa-Tonifikatzea	Infantil mailako karatea
19,00	Body-Stepa	SPINNINGA	Stepa-Aerobika	SPINNINGA	
19,30					CAPOEIRA
20,00		Helduen mailako karatea		Helduen mailako karatea	
20,30	STEPSA		BODY-GIMA		
21,00		SPINNINGA		SPINNINGA	

LARUNBATAK: Defentsa pertsonala 10:00etatik 11:30era

Muskulazio gela: Astelehenak-asteazkenak eta ostiralak 07:00etatik 22:00etara.

Astearteak eta ostegunak 07:30etatik 13:00etara eta 14:30etik 22:00etara.

ELKARRIZKETA

PEDRO ANDRINUA/AMERIKETAKO ESTATU BATUETAN ARTZAIN IBILITAKO

“Ameriketako euskaldunok familia moduko bat ginen”

EDU MENDIBIL

Domekan, hilaren 4an, Gipuzkoako Artzain Eguna ospatuko da Legazpin. Ameriketako Estatu Batuetan, Idaho, artzain ibilitako Domingo, Emilio eta Pedro Andrinua anaiak omenduko dituzte.

Zein urtetan joan zinen Idahora artzain?

1951n, 19 urte nituela. Lehengo ere banuen Euskal Herritik irteteko gogo. Hasiera baten Venezuelara joateko nintzen; gure osaba bat han bizi zen, San Antonio Tachiran. Eta gure jaioterrian, Bolibarren, Venezuelara lanera joan nahi zuten zerrenda egin zuten udaletxean. Baina Udaleko idazkaria nahiko xelebrea zenez, nire eskaera han non-bait galdu zen...

Eta Idahon amaitu zenuen.

Bai, Idahon gure osaba Ramon zebilen eta hura baserrira etortzen zen bakoitzean, hara joateko grina pizten zitzaidan. Gure aita Bolibarreko udaletxera joan zen egun batean, niri zuzendutako karta bat zegoela esan zioten. Osabarena zen: ea Idahora joan nahi nuen galdetzen zidan, eta ez nuen bi aldiz pentsatu. 1951ko San Fermin egunez aterra nintzen Idahora eta hamar urte eman nituen han.

Euskaldun asko joan zireten sasoi hartan...

Bai, Idahon gehienak gipuzkoarrak eta bizkaitarrak ginen (Bergarako Lete lehengusuak ere han ziren) eta Utah, Wyoming eta Nevadan, berriz, nafarrak eta Iparraldekoak ziren nagusi. Ni Idahora joandako urtean 500 artzain nafar joan ziren Ameriketara. Estatubatuarrendako ez zen ofizio ona eta gainera gaizki ordainduta zegoen. Baina Euskal Herriko egoerarekin konparatuz, guretako soldata bikaina zen: hoge mila duro garbi ateratzen

“Ni joandako urtean, 1951n, 500 artzain nafar joan ziren Ameriketako Estatu Batuetara”

genituen eta garai hartan Euskal Herrian etxe batek 130.000 pezeta inguru balio zuen. Pentsa...

Leku diferenteetan ibili zinen artzain?

Ez, urte guztietan Mitxel Lezertuaren arrantxoan egin nuen lan. 3.000 ardi inguru zeuzkaten. Nabarnizkoa zen Mitxel eta Juli Pagoaga emaztea, mutrikuarra. Primeran hartu ninduten. Egia esan, hara joandako euskaldunok familia moduko bat ginen. Ez nuen ingelesa ikasteko beharrik izan, gehienbat euskaldunekin tratatzen nuelako. 1978an


nagusiei bisitan joan nintzaien eta 10 dolarreko urrezko txanpon bat oparitu zidaten orduan. Hil ziren arte idazten ginen.

Beti esan ohi da artzain ofizioa gogorra dela...

Artzain lana ez da bereziki gogorra, ez da izerdirik botatzen. Txarrena askotan bakarrik ibiltzea da. Zelaietara eta erreserbetara (Idahoko lurren %75 estatuarena da) irteten ginenean *karro-kanpoa* eramaten genuen, estufa, jatekoak eta guzti. Bi lagun joaten ginen; bat artzain ibiltzeko eta bestea *camperoa*, sukaldari eta bestelako lanak egiteko. Zaldiak ferratzen, arotz lanak, denetik egin behar izaten zen arrantxoan ere bai.

Zergatik erabaki zenuen Euskal Herrira bueltatzea?

Han jarraitzeko eta beste lanbideren bat topatzeko asmoa nuen. Baina emaztea ezagutu eta hemen geratu nintzen... Hala ere, berriro Euskal Herriko bizimodura ohitzea ez zen erraza izan.



E.M.

Hiru anaia artzain lanetan indioen lurretan

Bolibarko Muniozguren baserria mendian gora dago, “itsasoarekiko 590 metrora eta Trabakua mendatetik 6 bat kilometrora”, zehazten du Pedro Andrinuak. Baserriko hiru anaiek jardun zuten artzain Idahon, Shoshone herrian hain zuzen ere. Garai batean shoshoni indioen lurraldea izan ei zen. Pedro (73 urte) izan zen lehena Idahora joaten eta handik gutxira Domingo anaia zaharrenak eta Emiliok jarraitu zioten. Pedro 1961ean itzuli zen handik eta Ondarroan hasi zen tabernari lanetan. Negozioa eskuz aldatu ondoren, Irrintzi taberna zabaldu zuen Bergaran, 1971n. Domingok eman zituen urte gehien Idahon, 1989an itzuli baitzen. Domeka eguerdian omenaldia jasoko dute Gipuzkoako artzainen festan, Legazpin.



PEDRO ANDRINUA

Emilio, Pedro eta Domingo Andrinua Idahon, atzean *karro-kanpoa* dutela. Argazkia 1956koa da.

INPRIMATEGIA

- INPRIMAKIAK OROKORREAN
- INPRIMATZEAK PAPER JARRAITUAN
- EZKONTZARAKO GONBIDAPENAK
- ENKOADERNAZIOAK
- KAUTXUZKO ZIGILUAK

Garbil

Artzamendi 4 20570 Bergara
Tel.: 943 76 23 28 faxa: 943 76 54 87
E-posta: imprentagarbil@euskalnet.net

PAPER - DENDA

- BULEGOKO MATERIALA LANTOKIRA ERAMATEN DUGU
- IRAILEAN ESKOLAKO MATERIALEAN ESKAINTZA BEREZIA
- ENPRESA-OPARIAK
- INFORMATIKARAKO OSAGARRIAK

ELKARRIZKETA

JOSU ZUBIA/BERGARAKO ERREGIONAL MAILAKO TALDEKO ENTRENATZAILEA

“Taldeak joko ikusgarria, futbolearen egitea nahiko nuke, ikusleek ere gozatu dezaten”

E.M.

Aurreko denboraldian mailaz jaitsi ondoren, Bergara KEko futbol talde nagusia erregional mailan lehiatuko da aurten. Josu Zubia aretxabaletarra (30 urte) dugu taldeko entrenatzaile berria.

Ilusionatuta hastear dagoen denboraldiari begira?

Bai, hilaren 22an hasi ginen entrenatzen eta oraingoz pozik nago jokalarien jarrerarekin. Jokalari oso gazteak dauzkagu, eta etorkizunera begira talde interesgarria osatu dezakegu.

Zerk bultzatu zaitu Bergarako zuzendaritzaren eskaintza onartzera?

Zortzi urte eman ditut Arrasaten (azken hirurak talde nagusian) eta hango zikloa bukatutzat eman nuen. Bergarako eskaintza interesgarria egin zidan eta gazteekin lan egiteko gogoia neukan.

Eta zein izango da helburua aurten?

Ikusi behar. Argi dago Bergarako erregional mailatik gora ibiltzeko moduko taldea eta egitura dituela, baina ez da erraza izango igoera lortzea. Partiduak jokatu ahala ikusiko dugu gure benetako maila zein den. Zuzen-

daritzak ez nau batere presionatu igoerako kontuarekin. Ea lehenbiziko jardunaldietan ondo ibiltzen garen, konfiantza hartzeko eta liga amaieran igoera lortzeko borrokan egoteko.

Igoera lortzea ez da erraza izango...

Ez, erregional mailan bi talde egongo dira eta multzo bakoitzeko txapelduna igoko da eta bigarren postuan geratzen direnen artean beste bat igoko da. Erregional mailan ere borroka handia dago eta Urola, Zumaiako, Pedrusko edo Ilintxa taldeak ez dira makalak izango...

Taldeak zela jokatzeko nahi zenuke?

Ez daukat sistema zehatzik. Azken baten, aurkariak, jokatzeko moduan daukazu jokalariek edo zelaiak baldintzatzen dute sistema hau edo bestea erabiltzea. Baina taldeak futbolearen egitea nahiko nuke, ikusleek ere

gozatu dezaten. Joko ikusgarria egiten badugu, askoz hobe. Ez zait gustatzen baloia zentzurik gabe hara eta hona ibiltzea.

Zeintzuk dira taldearen alderdi positiboak eta hobetu beharrekoak?

Oraindik goiz da hori esateko. Entrenamendu gutxi darabagu eta taktikoki gauza asko lantzeko dauzkagu. Hala ere, golak egiteko arazorik ez dugula izango uste dut. Baina partiduak ez dira bakarrik erasoan irabazten: defentsan ere gogor egin behar dugu lan. Azken baten, defentsa lanaren eta erasoaren arteko oreka ezinbestekoa da gauzak ondo ateratzeko.

Irailaren 18an liga hasi bitartean fitxaketarik egongo al da?

Horretan gabiltza. Zelai erdirako Aretxabaleta taldean ibilitako Andoni Rodriguez bergararra fitxatu nahi dugu eta, horrez gain, beste aurrelari bat fitxatu nahi dugu.

Agorrosin futbol zelaia atsegin duzu? Eta zein iritzi daukazu Bergarako zaleen gainean?

Bazkide eta jarraitzaile dezentetitu taldeak eta guztien laguntza beharrezkoa izango da. Ea jendea Agorrosinera etortzera animatzen den. Zelaia ondo dago orain. Ea horrela irauten duen...



ARRASATE PRESS

“Argi dago Bergarako erregional mailatik gora ibiltzeko moduko taldea eta egitura dituela”

Talde gaztea galdutako maila berreskuratzeko helburuarekin

Bergara Hiria txapelketa eskuratu ondoren, mahoneroek hilaren 18an hasiko dute liga, Agorrosinen, Amara Berriren aurka. Gazte mailako taldeak igotako jokalariez gain, Ilintxatik etorritako Julio Hernandez atezaina, Eldin Zibojevic defentsa (Arrasate) eta David Canas erdilaria (Aretxabaleta) dira nobedade nagusiak. Horrez gain, Ina Dovao, Alex Abajo eta Gorka Martinez bergararrak fitxatu dituzte.

2005-2006 denboraldirako behin-behineko taldea**Atezainak**

- Ander Sesma
- Julio Hernandez

Defentsak

- Aritz Agirre
- Mikel Gallastegi
- Iker Arazkonaga

- Andoni Nafarrate
- Unai Arana
- Jon Urteaga
- Eldin Zibojevic
- Txomin De Vega
- Josu Agirrezabal
- Alain Valle
- Julen Muguruza

Erdilariak

- Unai Agirre
- Mikel Otero
- Mikel Salegi
- Jokin Baltzategi
- David Canas
- Alex Abajo
- Eloy Crespo
- Gorka Martinez

Aurrelariak

- Iñaki Mujika
- Imanol Cabanillas
- Martin Ibañez
- Ina Dovao
- Iñaki Corral

OGIZUN
koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

AGIRRE

Irailaren

3 10
tik era**Azken prezioak**

Bidekurutzeta 18 • 943 76 72 67

ETXEBERRIA**ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA**Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tel.: 943 76 23 94 / 943 76 12 65

ARETO FUTBOLA/ Izenematea astelehenera arte, irailaren 5era arte izango da zabalik

Labegaraietako futbito txapelketa: 20. ekitaldia izango da aurtengoa

E.M.

Labegaraietako futbito txapelketa 20. ekitaldia beteko du aurten. Txapelketa irailaren 24an hasiko da eta bertan parte hartu nahi duten taldeek astelehenera arte daukate izena emateko aukera. Talde bakoitzak 190 euro ordaindu beharko ditu.

Antolatzaileek jakitera eman dutenez, astelehena, hilak 5, izango da izena emateko azken eguna. Talde bakoitzak 190 euro ordaindu beharko ditu Lagunak elkarteak Euskadiko Kutxan duen kontu korronte zenbakian: 0090 03 3922-2. Taldearen izenean egingo da ordainketa.

Era berean, taldekideen zerrenda eta jokalariek bakoitzaren nortasun agiriaren kopia entregatu behar dira. Taldeek ordezkari bana izendatu beharko dute, telefono eta guzti, hala suertatuz gero antolatzaileek taldearekin kontaktatu ahal izateko.

MARTITZENEAN, BATZARRA

Martitzenean, hilaren 6an, ordezkariekin batzarra egingo da kultura etxean, 18:30ean. Talde bakoitzak bilerara bere ordezkaria bidaltzea eskatu dute antolatzaileek. Txapelketaren nondik norakoak azalduko zaizkie.



Errotagainek 6-2 irabazi zion Pirulotarrak taldeari azken ligako finala.

ARTXIBOA

Aurten ere liga eta kopa txapelketak jokatu dira udaberria bitartean

HILAREN 24AN HASIERA

Esan bezala, txapelketako lehenbiziko jardunaldia irailaren 24an eta 25ean jokatu da. Parte hartzen duten taldeen arabera, multzoak osatu dira eta multzo bakoitzean liga sistema jarraituta jokatu dira partiduak hilaren amaieratik aurrera.

Ohikoa denez, liga eta kopa txapelketak jokatu dira. Udaberri partean jokatu dira finalak.

Azken edizioan Errotagain taldeak eraman zuen liga txapelketa eta Arrasateko All Blacks taldea, berriz, kopakoan nagusitu zen.



Bergarako ehiza txapelketa irailaren 9an, Zanbranan

Hurrengo egubakoitzean, irailaren 9an, Bergarako Ehiza Txapelketa jokatu da Zanbranan, Araban. Ehi-za txapelketa 08:30etik 13:00etara jokatu da eta izenematea Euxebio II edo Amilotx tabernetan egin daiteke, 25 euroren truke. Izena emateko azken eguna eguaztena, irailak 7, izango da. Oilagorra ehiza elkar-tea da txapelketako antolatzaila.

Txapelketa egunean txakur bakarrarekin egin ahal izango da ehizan eta beharrezkoa izan da eta ehiza agiriak eguneratuta izatea. Iazko ekitaldian herriko 26 ehiztarik jardun zuten lehian eta Unai Etxeberriak eskuratu zuen garaipena. Ondoko argazkian, Unai Etxeberria iazko ekitaldiko txapel- duna kopa jasotzen.

Denboraldi berrirako kirol ikastaroak Udalaren eskutik

E.M.

Kirol Zerbitzuak hainbat kirol ikastaro iragarri ditu. Hain zuzen ere, spinning, aerobik, mantenu gimnasia, tenisa, yoga eta pilates ikastaroak izango dira denboraldi berrian. Aerobikaren kasuan, ikastaroa 16 urtetik gorakoei zuzenduta dago. Hala ere, 12-16 urte bitarteko gazteendako aerogazte ikastaroa izango da. Gainerako ikas-

taroetan gutxienez 14 urte izatea beharrezkoa da.

IZENEMATEA ZABALIK

Matrikulak 18 euro balio du eta hileko kuota ezberdina da ikastaroaren arabera. Kirol Zerbitzuko bazkideendako deskontuak daude. Interesatuek Kirol Zerbitzura edo 943 77 91 67 telefonora jo dezakete. Tenis, yoga eta pilates ikastaroetarako izenematea, berriz, irailaren 12an zabalduko dute.



ARTXIBOA

Ikastaroetan parte hartzeko izenematea zabalik dago udaletxean.

TELEBISTA/ 'Los hombres de Paco' telesailean ikusiko dugu Aitor Gonzalez Luna aktore bergarra, urri bukaeratik

Aitor Gonzalez aktorea Antena 3n ikusiko dugu

AINZANE IRIZAR

Los hombres de Paco telesailean inspektore papera hartuko du Aitor Gonzalez Luna aktore bergarrak. Urri bukaeran hasiko dira telesail hori emititzen, Antena 3 telebista katean. **Goenkaleri** esker, aurpegi ezaguna dugu Aitorrena.

Neus Asensi, Juan Diego, Adriana Ozores eta Pepon Nieto aktore ezagunak dira, besteak beste, Aitor Gonzalez Lunaren lankideak *Los hombres de Paco* telesailean. "Horrelako aktoreekin lan egitea luxua da niretako", adierazi digu Aitorrek. Proiektu berri honekin nahiko urduri, baina, era berean, oso pozik dagoela azaldu digu.

Orain dela bi astetik buru-belarri dihardute grabazioekin,

eta urri amaieran estreinatuko dute telesail berri hori; domeka gauero ikusi ahal izango dugu. Polizien gainekoa da eta inspektore papera hartuko du Aitorrek; Juan Diego aktoreak Aitorren nagusiaren papera beteko du. Umore beltzeko telesail moduan definitu digu Aitorrek *Los hombres de Paco*.


Oraingoz, hamahiru kapitulu grabatuko dituzte; gero, gauzak ondo baldin badoaz, baliteke telesaia luzatzea.

Juan Diego, Neus Asensi eta Pepon Nieto dira, besteak beste, telesaileko beste aktoreak

'GOENKALE'TIK MADRILERA

*Goenkale*n Danelen paperean ezagutu dugu Aitor; aurreko denboraldi osoan jardun du ETBko telesailean. Maiatzean, *Goenkale*ko grabazioak bukatuta, Madrilera joan zen eta aukera paregabea sortu zitzaion: "Globomedia produktorearekin elkarrizketa bat lortu nuen eta paper hau eskaini zidaten".

Hamazazpi urterekin hasi zen Aitor antzerki ikasketekin, Donostian; hurrengo urtean Bilbora joan zen eta Arte Dramatikoko ikasketak egin zituen, hiru urtez. Ordutik, hainbat kale antzerki, kale animazio, *performance* eta antzerkitan jardun du. Gehien gustatzen zaiona da kafe antzokietan jardutea, publikoak bertatik bertara izatea. Zinea egitea da orain geratzen zaion ia bakarra.



IMANOL SORIANO

Goenkaleko Danel bezala ezagutu dugu gehienok Aitor Gonzalez Luna.

Irailaren 22an estreinatuko dute 'Aupa, Etxebeste!' filma, Zinemaldian

E.M.

Asier Altuna *Kixik* Telmo Esna-lekin batera zuzendu duen *Aupa, Etxebeste!* filma irailaren 22an estreinatuko dute Donostian, Zinemaldiaren barruan.

Zabaltegi sailean estreinatuko dute filma; gainera, zuzendari berrien sarirako lehiatuko dira *Kixi* eta *Esna*.

Irailaren 21ean, Euskal Zinemaren Eguna izango da Zinemaldian, eta filmaren ekoizleak, Irusoin eta Alokatu, sarituko dituzte hantxe.

Irailaren 23an, berriz, Donostia, Gasteiz eta Bilboko zinemetan filma ikusteko aukera izango dugu. Gaztelerazko bertsioa ere prest dute dagoeneko; astebete beranduago, hilaren 30ean estreinatuko dute gaztelerazkoa, Barzelonan eta Madrilan.



AUPA, ETXEBESTE!

Aupa, Etxebeste! filmaren irudi bat; Ramon Agirre eta Elena Irureta aktoreak.

MIKEL LASKURAIN, 'OBABA' FILMEAN Montxo Armendariz zuzendariaren *Obaba* filmak, berriz, Zinemaldiaren sail ofizialean lehiatuko du; Mikel Laskurain aktore bergarrak parte hartu du film horretan. Postariaren paperean ikusi ahal izango dugu.

tuko du; Mikel Laskurain aktore bergarrak parte hartu du film horretan. Postariaren paperean ikusi ahal izango dugu.

LABUR

Gazta dastatze ikastaroa izango da datorren egunean, hilak 8, kultura etxean

Udaleko Kultura Zerbitzuak aditzera eman duenez, gazta dastatze ikastaroa izango da datorren irailaren 8an, 19:00etan. Ikastaroa euskaraz izango da. Plazak mugatuak dira. Gehienez, 25 lagunek parte hartu ahal izango dute. Izena emateko aukera dago martitzenera arte, irailak 6. Argibideak 943 77 91 59 telefono zenbakian.

Bergarako Gaztetxeak 'Emakumearen Asteburu' antolatu du gaurko eta biharko

Emakumearen Asteburuaren barruan, hainbat ekitaldi antolatu ditu gaztetxeak. Gaur, egubakoitza, emakumearen gaineko mintegi teorikoa egongo da, 18:00etan. Bihar, zapatua, 17:00etan, mintegi praktikoa egingo dute; 22:30ean, berriz, kontzertua izango dugu, honako taldeekin: *Lost Girls*, *Stolidus* eta *Against the Rapist*.


Trikiti eskola eta haur eta helduen bertso eskolak Jardun euskara elkartearen eskutik

Trikiti eskola eta haur eta helduen bertso eskolak ikasturte hasieran martxan jarriko dira. Soinuko klaseak astearte, asteazkenean, ostegunetan eta zapatutan izango dira eta panderoko klaseak astelehenean eta ostiraletan. Argibideak: 943 76 36 61.

CAMACHO

Drogeria
Usaindegia

Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35



POL-POL Taberna

943 76 07 78. Bergara

KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

GURIA Taberna




Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34



SHOTOKAN KARATE-DO




10 urte karatea irakasten



- Karate klaseak hil honen 12an, astelehena, hasiko dira:
Umeak: 1. txanda, 17:30etik 18:30era
2. txanda, 18:30etik 19:30era
Nagusiak: 19:30etik 20:30era

- Ikastaroak Joxean Iñarra irakasleak emango ditu, titulu hauen jabea: **Euskadiko selekzioko prestatzaile fisikoa, Gipuzkoako selekzioaren hautatzailea, Soin hezkuntzako lizentziatua (INEF) eta Euskal Karate Federazioko prestatzaile fisikoen eskolako zuzendari teknikoa.**
- **Harremanetarako deitu 615 79 90 78 telefonora edo zatoz Ipintza Institutuko DBH eraikuntzako gimnasia orduetan.**

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR

Ze kaletan dago balkoi bitxi hau?



Super BMk emandako **30 euroko erosketa-txartela** zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileen artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

DOLORES ARANTZABALendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Dolores!
Galderaren erantzun zuzena: **Kanposantutik (Alkabieta kalea).**



BONOFOTOKO GALDERAREN ERANTZUNA:

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Kraft maionesa

450 g-ko ontzia

0,99 €

165 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



ERRETRATUZAHARRA

BERGARA

Senior mailako eskubaloi taldea, 1991

Laster hasiko dira Bergara Kirol Elkarteko sail ezberdinetako taldeak martxan. Gogor entrenatu eta sasoi puntua hartzeko sasoi da orain, oporretatik bueltan. Denboraldi berria hastear dago talde gehienendako.

Goiko argazkian agertzen direnek senior mailako eskubaloi taldea osatzen zuten duela 15 urte, 1990-91 denboraldian. Jose-txo Muniategi entrenatzailearen aginduetara, emaitza bikainak lortu zituen eskubaloi taldeak garai hartan.

Hauek dituzue argazkian azalzen diren jokalarien izen-abizenak, ezkerretik eskumara:

Zutik: Aitor Ibarra, Josu Zeziga, Felix Eguren, Jose Ramon Iturbe, Edu Eguren, Aitor Elortza eta Edu Iñarra.



Makurtuta: Iñigo Ruiz, Ibon Gantxegi, Mikel Arregi, Xabier Lijo eta Bittor Zangitu.

Argazkia: Xabier Lijo

ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARARA (Irizar jauregia, Barrenkalea 33), Elgetako kultura etxera edo Oñatiko Laixanera. Zain gaituzu!

FARMAZIENTXANDA

EGUBAKOITZA, 2

ZABALA, Barrenkale 25. 943 76 16 87

ZAPATUA, 3

CAMACHO, Oxirondo 4. 943 76 11 74

DOMEKA, 4

CAMACHO, Oxirondo 4. 943 76 11 74

ASTELEHENA, 5

ESTELLA, Matxiategi 5 943 76 19 63

MARTITZENA, 6

CAMACHO, Oxirondo 4. 943 76 11 74

EGUAZTENA, 7

ESTELLA, Matxiategi 5 943 76 19 63

EGUENA, 8

CAMACHO, Oxirondo 4. 943 76 11 74

TELEFONOAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Anbulatorioa (txanda) 943 03 54 00
Bergarako Udaltzaingoa 943 77 91 06
Antzuolako Udaltzaingoa 943 76 62 46
Ertzaintza 943 53 47 20
Osasun etxea 943 76 24 40
Asepeyo 943 76 16 43
Pakea 943 76 13 49
Angiozarko medikua 943 78 90 27
Antzuolako medikua 943 76 62 23
Odol emaleak 943 76 16 24
Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

GARRIAOK

Taxiak 943 76 19 50

UDALA

Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
Udal Arxiboa 943 77 91 32
Igerilekuak 943 76 20 51
Kultura etxea 943 77 91 58
Liburutegia 943 77 91 62
Kiroldegia 943 76 56 41
Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia 943 76 14 92
Erregistroa 943 76 13 15
Jardun 943 76 36 61
Postetxea 943 76 26 85
Bedelkar 943 76 04 68
Akulu AEK 943 76 05 18
Udal Euskaltegia 943 76 44 53
Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

URTE-MEZAK

Santa Marina
Hileko bigarren domekan,
10:30ean eta 13:00etan.
San Pedro
Hileko hirugarren domekan,
09:30ean eta 12:30ean.

URBANOAK


San Lorentzo/San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00,
11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00,
16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20
eta 21:00.

GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegarieta/Olabarrenetik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00,
10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.

GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espolgia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ATREBENTZIAEZPADA/ Zer moduz joan dira oporrak? Bergaran abuztuan zer egin daiteke?



MIKEL PEREIRA



ENCARNA DIAZ




SABINO AZKARATE



CAROLINA ORELLANA



MARTIN INTZA



SILVESTRE MUÑOZ

Orreagan egon gara oporretan, baina, Bergaran ere bai, hemen bizi dira eta nire anaiak. Abuztuan, egia esan, ez da ezer askorik egoten herrian, baina, lasai egoteko oso ondo dago eta gustura egoten gara.

Bergaran egon naiz abuztuan, herria zaintzen. Oso ondo pasatzen dut nik herrian: mendira, hondartzara eta inguruetara joaten gara. Herrian kanpoan baino askoz hobeto egoten da abuztuan.

Kanpoan egon gara, Frantzia eta Jacan; hiru aste egon gara kanpoan. Dena dela, Bergaran geratuta ere, beti dago ondo pasatzeko aukera: mendira joatea, hondartzara... Gainera, oso lasai egoten da herria.

Kanpoan egon gara, Zamorran. Aste bat pasatu dugu Bergaran; ia inor ez da ibiltzen kalean, desertua ematen du. Dena dela, ondo pasatzeko aukera ere bada: kanpoan bazkaldu, hondartzara joan...

Bergaran pasatu dugu abuztu osoa, herria zaintzen. Ni oso mendizalea naiz eta Urbia aldera irteera ugari egin ditugu. Ez zait gustatzen kanpora joatea; Euskal Herrian, gainera, toki oso ederrak daude ikusteko.

Ia hilabete guztia pasatu dugu Jaenen. Urte guztia egoten gara Bergaran, eta oporretan, ahal izanez gero, nahiago dut kanpora irteera. Abuztuan, San Lorenzo jaiez gain, gauza gutxi egoten da egiteko.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK AUTOBUS GUTXIAGO Udan herrian gelditu den bergar batek esan digu hondartzara joateko garraio zerbitzua eskasa izan dela. "Berez autobus gutxi izaten da eta udan are gutxiago, batik bat abuztuan. Autorik gabe herritik irten nahi dugun jendea ere bada-gaia kontuan hartu behar lukete", salatu du. /I.A.

BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Gurixa"



Lengo abadiak lepo guri-gurixa izate eben.

JON IRAEGI

BESTEKEESANA

“ Nekazal turismoa da baserriarendako itxaropen handienetakoa bat. Gure datozenak natura, baso eta animalia bila datozenez, behartuta gaude zelaiak, ibarrak eta inguruak zaintzera, mimatzera eta ez alde batera lagatzera. Bestalde, nekazal turismoak dirua ematen du, baina, bere arriskuak ere baditu. Nekazal turismoak bidaiatzeko, ostatu hartzeko eta paisaiarekin eta etxean hartzen dituztenekin harreman ezberdina izateko aukera eskaintzen die bezeroei...
... Emakumea izan da beti baserria aurrera atera duena. Gizona erabaki handiak hartzeko zegoen. Fantasia handiak izateko.
MAITE ARISTEGI / Baserritarra 'El Diario Vasco'/05-08-19

BERAIEKDIÑO/ Iñigo Garitano



Parentesia itxi

Uztailaren bukaeran irakurri genuen *Asteleheneko Goienkarian* "natura modurik gordinean agertzen zaigula ume bat jaiotzen denean, gaixotasunean edo gertuko baten heriotzean, eta oporretako ubidean baino ufalean igerian dabilzatek jakingo dutela aurrera egiten gizakiak historian erabili duen jakinduria eta elkartasunari esker".

Bueno, bukatu dira oporrak eta itxi dugu udako parentesia. Eta naturak, gizakion laguntza ezin hobearrekin, jarraitu du bereak egiten: New Orleansetik pasatu den Katrina urakana, Europako erdialde eta iparraldeko euriteek sortutako uholdeak, Espainian eta Portugalen izandako sute erraldoiak, e.a.

Lerro horien idazlea oker ez zebilelakoan nago: aurrera egin dute haur jaio berria izan duten gurasoek, aurrera egiten dihardute gaixotasunak

dituztenek, aurrera egiten saiatzen dabilzate heriotza gertutik sufritzen dutenak, eta aurrera egingo dute naturak modu erraldoian sortutako kaltetuek ere.

Baina kasu guztietan, neurri ezberdinean, jakina, egoera latzen aurrean gizaki guztiok aurrera egiteko dugun ezkutuko gaitasuna azaleratu da. Eta horrela izaten jarrai dezala. Gizakiok dugun biziraupeneko senaren adierazpenak izango dira. Eta gai baldin bagara zailtasun horiei aurre egiteko, ez dadila inor etorri opor osteko ustezko sindromeak gainditu duela esanez.

Ez dut ukatuko hilabetez ia obligaziorik gabe bizi ondoren lanak eskatzen duen eguneroko diziplinara itzultzeak ahalegin bat eskatzen digunik.

Baina, tira, ipini ditzagun zailtasunak ere bere tokian, Goiko trenbideko paseoa egitea ez da Anbotora negu gorrian igotzea.

"Egoera latzen aurrean gizaki guztiok aurrera egiteko dugun ezkutuko gaitasuna azaleratu da"

HAUGIROA!

MINIMOA Eguena, 25	11 °C		
MAXIMOA Martitzena, 30	36 °C		
ASTEKO EURIA (l/m ²)	3,8 L		
	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 24	27 °C	11 °C	- l/m ²
Eguena, 25	27 °C	11 °C	-0,4 l/m ²
Egubakoitza, 26	20 °C	17 °C	0,3 l/m ²
Zapatua, 27	24 °C	16 °C	3,1 l/m ²
Domeka, 28	26 °C	19 °C	- l/m ²
Astelehena, 29	30 °C	16 °C	- l/m ²
Martitzena, 30	36 °C	16 °C	- l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak

Goibekokale

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 02
Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Aintzane Irizar
Iratzi Agirreazaldegi
MAKETAZIOA
Maitena Arana

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkoroberezar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
8.680 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzua

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2005eko irailaren 2a / 254. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 25 05 02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Bidaiatzeko beste era bat aukeratu dute bi antzuolarrek: elkartasun bidaiak

AINTZANE IRIZAR

Ohiko oporraldirik ez dute izan Hodei Lete eta Eneida Iturbe antzuolarrek; Amerikan egon dira biak. Mexikon, Chiapasen, egon da Hodei hango egoera gertutik ezagutzen. Eneida, berriz, Guatemalan egon da, hango hainbat komunitate indigenatan.

Zapatistek uda hasieran iragarri zuten egoerak okerrera egingo zuela Txiapasen eta bidaiari askok atzera egin zuten hara bidaiatzeko asmoan. Hodeik, baina, joatea erabaki zuen eta oso bidaia interesgarria izan dela aitortu digu.

Lum Lur Donostiako elkar-teen bitartez joan da Txia-pasera. Ez da, baina, taldeko bidaia izan. Elkarrekin horrek komunitate zapatistetan sar-tzeko baimen antzerako bat eman zion Hodeiri eta euren izenean bidaiatu zuten.

“Nire helburua zen hango egoera ezagutzea, ez nintzen lane-ra joan”. Hodeik ez zeukan, beste askok egiten duen moduan, proiektu baten parte hartzeko asmorik; bere nahia zen zapatisten bizimodua, ideologia, ohi-turak eta kultura bertatik bertara ezagutzea.

Kontatu digunez, hango indigenak oso kontzientziatuta daude; neoliberalismoarekin amaitzea da euren helburua. Hodei Txiapasen egon zenean, zapatistek hainbat batzar izan zituzten Mexikoko ezkerreko alderdieta-ko ordezkariekin. “Horietako batzar baten egoteko aukera izan genuen, baita hainbat komandante ikusteko eta euren entzuteko aukera ere”, azaldu digu.

Txiapas lurralde zabala da, eta batetik bestera ibili ziren; hainbat hiriburu bisitatu zituzten Hodeik eta han ezagutu zituen hainbat lagun kataluniarrek.

ENEIDA, GUATEMALAKO INDIGENAKIN
Eneida Iturbe, berriz, Guatemalan egon da; Kataluniako Setem gobernu kanpoko erakundearen bitartez joan zen hara. Erakunde horren helburua da, batez ere, jendea hango



Eneida eta bere taldekideak katchiquel indigenekin egon dira, Guatemalan.



Hodei Lete La Garrucha herrian, Txiapasen.

*Hodei Lete
Txiapasen egon da
komunitate
zapatisten egoera
ezagutzen*

*Guatemalako
Katchiquelen
komunitateak
ezagutu ditu
Eneidak*

egoeraz kontzientziatzea. Elkartasun bidaiak antolatzen dituzte, eta horietako baten parte hartu du Eneidak. Iaz Mexikon hiriburuan, egon zen, inor ez zeukatenean ume eta gazteak harrera etxe baten lanean.

Guatemalan 1961etik 1990-eko gerra zibila izan zuten eta hainbat gehienak indigenak izan ziren. Sarraski handiak egin zituzten komunitate indigenatan.

Chillani komunitatean egon da Eneida, Katchiquel indigenekin. “Hiriburutik nahiko gertu dago Chillani eta nahikoa onartu daude, beste batzuekin alderatuta: ura daukate etxeetan, baina ta argindarra ere...”

Hala ere, euren kultura ez dago batera onartu. Eneidak azaldu digunez, ez gogoratuak, ezta katchiquelek euren ere, ez dituzte euren kultura ez hizkuntza behar bezala baloratzen. “Herrialde garatuaren garrantzi txarrenak bereganatu dituzte: ingelesari garrantzi handia ematen diote, guztiak dute telebista... Baina, hezkuntzari, atzerantz bidez, ez diote batera garrantziarik ematen”.

Hondartzara eta ondo pasatzen joan gara gehienok udan baina, Eneidak eta Hodeik, ez gogoratu askok bezala, oporraren beste era batera aprobetxatzea erabaki dute: elkartasuna eraman dute Amerika aldera.

KIROLA

Futbol taldeak hasi dira denboraldi berria prestatzen

A.I.
AKEko futbol talde gehienek oraingo astean bertan hasi dituzte entrenamenduak; infantilek aurrerago hasiko dituzte. Oraindik entrenatzaile eta jokalaririk faltan dabilta talde gehienetan. Nesken taldea, berriz, oraindik kolokan dago.

Gazte mailako taldea izan da entrenamenduekin hasten lehenengoa; astelenean ekin zioten denboraldi berria prestatzeari. Eurak izango dira liga hasten ere lehenengoak: hilaren 11n, Debaiko Amaiak Bat taldearen aurka jokatuko dute, Estalan.

Gainerakoen egutegia zehaztu gabe dago oraindik, baina, hila-bete erdialdean hasiko direla

espero dute. Infantilek, berriz, urrian hasiko dute denboraldia. Erregional mailako taldeak lagunarteko bizpahiru partidu jokatuko ditu denboraldia hasi baino lehen.


ENTRENATZAILE ETA JOKALARI FALTA
Talderik gehienetan, oraindik arazo ugari dituzte; entrenatzaile eta jokalaririk behar daude AKEko arduradunak. Gazte eta

kadete mailako taldeetan, bereziki, jokalaririk behar dituzte; interesa dutenek, AKEko arduradunengana jo dezakete.

Entrenatzaileei dagokienez, berriz, bi besterik ez dituzte: erregionalen taldea Jose Luis Sestok entrenatuko du; gazteena, berriz, Mikel Larrañaga *Makik*. Kadete mailako taldearen ardura Jose Angel Fernandezek eta Gaizka Asensiok hartu dute, entrenatzaile berria aurkitu bitartean.

Nesken taldearekin, berriz, arazo handiagoa dute; AKEko presidente Jose Angel Fernandezek adierazi digunez, oraindik ez dakite taldeak aurrera egingo duen ala ez. Izan ere, jokalariek ez diete ziurtatu jarraituko duten. Entrenatzaileak ere ez dute; bali-teke taldeko bi jokalaririk ohi arduratzea nesken taldeaz.

Gazte mailako taldeak irailaren 11n hasiko du denboraldia, Estalan



Sebastian Segoviari egokitu zaio Anelkarren saria

Anelkarrek herriko jaietan antolatutako zozketako lehen saria Sebastian Segoviari irabazi du (2.323 zenbakidun txartelarekin); Otxagabiako nekazal turismo etxe baten asteburu bateko egaldia, hain zuzen ere. Irail bukaeran joango dira Sebastianen senitartekoak hara. Argazkian, Sebastian saria jasotzen, Jabier Etxaniz Anelkarren kidearen eskutik. /A.I.

LABUR

Auto Gabeko Eguna antolatzen dihardute Udaleko arduradunek, irailaren 22rako

Jakinekkoa da behar baino askoz gehiago erabiltzen dugula autoa gehienok. Antzuolako Agenda 21 Udaltaldean ere horixe ikusi dute. Hori dela eta, Udalak Auto Gabeko Eguna antolatzeke asmoa dauka; irailaren 22an izango da hori. Dena dela, oraindik ez dago ezer zehaztuta eta hainbat batzar egitekoak dira herriko eragileekin eta enpresetako arduradunekin, besteak beste.

Arrolak batzorderako jenderik topatzen ez badu, desagertu egingo da elkarte

Datorren astean gutun bat helaraziko diete Arrola Mendizale Elkarteko arduradunek elkarteko bazkide guztiei. Zera azalduko diete hantxe: lehenbailehen zuzendaritza batzordea berritzeko jendea topatzen ez badute, abenduan desagertu egingo dela elkarte; Azaroa baino lehen batzorde berria osatzea komeni da. Berez, bi urte-tik behin berritu behar dute Arrolako zuzendaritza, baina, oraingo batzordekideek dagoeneko hiru urte daramatzate lanean. Interesa dutenek Arrolako arduradunengana jo behar dute.

Herri Ikastetxeko neska-mutikoen hilaren 8an, eguna, hasiko dituzte eskolak

Datorren asteke egunean, hilak 8, hasiko dituzte eskolak Herri Ikastetxeko neska-mutikoen. Lehenengo bi egunetan goizez bakarrik izango dituzte eskolak. Irailaren 13an, berriz, ikasturtea ondo baino hobeto hasteko, udalekuetara irteera egingo dute lehenengo mailatik seigarren mailara arteko umeek. Gainerakoak, berriz, txikienak, goiz eta arratsaldean hasiko dira egun horretan.

Udalak '2003-2005 legealdiko memoria' banatu du oraingo astean herriko etxeetan

Legealdiaren erdira iritsita, Udalak bi urte hauen erreposaoa egin duen memoria egin du eta oraingo astean herriko etxe guztietan banatu du. Memoria horretan, batzordez batzorde Udalak egin dituen proiektu eta ekintzen berri ematen du. Kasu askotan, proiektu horien aurrekontuak ere zehazten ditu.

Liburutegia irailaren 5ean zabalduko dute, eta hilaren 12tik ohiko ordutegia izango du

Udal Liburutegia irailaren 5ean, astelehena, zabalduko dute, goizez. 11:00etatik 14:00etara egongo da zabalik, egunero. Hilaren 12tik aurrera, berriz, umeak eskolan hasten direnetik, ohiko ordutegia izango du, arratsaldean, 17:00etatik 20:00etara. Udaletxeko bulegoak, berriz, irailaren 1etik aurrera, udako ordutegiari heldu dio: 08:00etatik 15:00etara. Urritik aurrera ohiko ordutegia izango du.

KZgunea oraingo astean zabalduko dute eta bi ikastaro antolatu dituzte irailerako

Atzo, eguna, zabaldu zuten KZgunea, abuztuan itxita egon eta gero. Aurreko ikasturtean bezala, egunetan egongo da zabalik, 09:00etatik 13:00etara. Irailerako bi ikastaro antolatu dituzte. Datorren astean, irailak 8, eskainiko dute lehendabizikoa; foroan gainera izango da, 11:00etatik 13:00etara. Hurrengoan, berriz, hilaren 22an izango da, 09:00etatik 11:00etara. ViaMichelin web gunearen laguntzarekin zela bidaiatu ikasi ahal izango da hantxe.

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

ANTZUOLA
Apainketak eta isolamenduak
Pladurrezko dibisioak
Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

Tomas Gezalaga
Apainketarako eta industriarako pinturak
Paper margotuak
Moketak eta tapizatuak
Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

GAILUR
taberna eta gozotegia
Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

Tomas Gezalaga
Zoruen kutxilatua eta bernizatzea
Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2005eko irailaren 2a / 236. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegi • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 25 05 02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

Elgeta, zine-plato: Gary Oldman eta Aitana Sanchez-Gijon Iturri baserrian

IBAN ARANTZABAL

Koldo Serraren lehenengo filma izango da *El bosque de las sombras*. Abuztuan aurkeztu zuten filma Donostian eta egunotan etorriko dira Elgetara, Arantzeta auzoko Iturri baserria. Akzioa eta tentsioa izango dituen filmean aktore ezagunek hartuko dute parte.

Elgetako Udalean eskatu zuten filma grabatzeko baimena eta arazo barik eman zitzaion. Eskaeran zehazten denez, zortzi egunean filmatuko dute Elgetan, irailaren 7 eta 16a bitartean, hain zuzen. Data horretarako dena prest egon dadin, berriz, hasiak dira dekorazioa prestatzen.

Egunez zein gauzez filmatuko dute, eta gehientsuena gauzez. Efektu bereziak ere erabiliko dituzte; esaterako, egun euritsua egiteko makinak, arma tiroak...

KOLDO SERRA ETA IKER MONFORT

Getxoztarra da Serra eta lehenengo film luzea bada ere, sariak izan dira haren hainbat film labur: *El tren de las brujas*, *Sick of you...* Iker Monfort izango da zuzendaria eta produktorea. Mon-



Donostian aurkeztu zuten filma. 50 lagun inguruk osatzen dute taldea, eta gehientsuenak izango dira Elgetan.

fortek zuzenduko du dekorazio lana Iturri baserrian.

AKTORE ENTZUTETSUAK

Ezaguna, oso ezaguna da Gary

Oldman. *Drakula*, *Beethoven*, *Harry Potter*-ko *Sirius Black*... Eta ez dira atzean geratzen, hala ere, Virginie Ledoyen eta Aitana Sanchez-Gijon.

FILMAREN NONDIK NORAKOA

Western erako film gogorra izango dela esan zuten Aitana Sanchez-Gijonek. Western modernoa izango da, nekazari eszenategian koka-

Irailaren 7tik Elgetan, Arantzeta auzoan filmatuko dute 'El bosque de las sombras'

tua. Aste akabera bat kontatuko da filmean, 70eko hamarkadako uztaro bero bat, Euskal Herrian. Pertsonaia konfliktibo batzuk elkarrekin egingo dira, eta bat-batean zerbait ezingo du. Hortik aurrera, pertsonaien arteko ehiza moduko bat biziko dute. Aste akabera idiliko bezala agertzen dena bira-raupen tentso bilakatuko da. Amaieran pertsonen arteko ehin ikusiko dugula esan zuten Donostian, ehiza biolentoa. Irailaren amaieran amaituko dute filma.

Julio Fernandezek filmaren zabalkunde internazionalaz berba egin zuen, baina buruan du Donostiako Zinemaldian aurkeztea. Zera esan zuen: "Euskal Herrian grabatutakoa da, eta ingarri gustatuko litzaziguke Donostiako Zinemaldian aurkeztea."

HERRITARREN HITZA/ Eduardo Zubiaurre Enpresaburua

Jentilen akabera

Juan Inazio Hartsuagaren euskal mitologiari buruzko irakurketa interesgarria iruditu zait. "Euskaldunok baditugu hainbat ezaugarri bereizgarri: zeruko istorioei begira baino lurreko gertaerak nahiago izatea, gizabanakoen duintasun eta askatasunaren goretzea, egia-erakiko lotura edo elkartzunean oinarritutako giza harremanak". Eta, Neolitoaren amaieran Europa atlantiarrean garatutako kultura megalitikoaren ezaugarri gisa, gure kasuan Jentilak ziran lanaren eta elkartzunaren

jainkozko erraldioak. Ikerlariak zera adierazten digu, euskal mitologiak mikrokosmos asetu eta egonkor bat egituratzen duela: aldaketa edo dinamismo gabekoa, ideologikoki tentsio barik eta lorpen pertsonalak itotzen dituen. Zer pentsa eman zidan, gure historiara begira oso euskalduntzat ditugun pertsonai ezagunenak (Loiola, Elkano,



"Hobe aberria eraberritu eta laborrak saltzen indartzea"

egoerara moldatzeko gaitasuna ere azaldu zutela, eta

Arana, Arizmendiarrrieta...) bere bizitasun, egon ezin eta alor ezberdinetan aldaketak bultzatzeko gaitasunarengatik famatu zirelako. Badirudi bai etxean eta bai mundu zabalean arrakasta izan zuten euskaldunak bere jatorrizko baloreez gain (lana eta elkartzuna) garaian garaiko

jarrera hori ez dakit ba oso euskalduna dugun. Uda hasieran Cataniak (MCC) errege-erreginen bisitaldia enpresa erabakitzat arrazoitu ondorengo kritikak gogoratu nituen: laborrak saltzeagatik aberria saltzeko gertu omen izatea kritikatu zioten. Ez dakigun gertatu gero Jentilarena, "Kixmia" agertu zelako eta garai berrien beldurrez, bere burua amildegi bota zuela. Hobe aberria eraberritu eta laborrak salduz indartzea, betikoaren aitzakian eta aldaketen beldurpean desageraraztea baino.

LABUR

Jazz lehiaketa jokatu da urrian Espaloian

Kontratu diskografikorik ez duten taldeendako lehiaketa izango da. Hala ere, maila internazionalako taldeen bati ere ekarriko dute antolatzaileek. Errabal Kultur Elkarteak da antolatzailea eta abuztuan irailaren 22an amaituko da apuntatzeko epea. Apuntatzeko: errabal@hotsak.com.

Sei talde aukeratuko dira lehiatzeko eta ondoren kontzertua egingo dute urriaren 8an eta 9an. Saria disko grabatzea izango da.

SAHIESBIDEA

Saihesbidea urrian inauguratuko dute; enpresetarako oinezko bidea, Lasaoatik

IBAN ARANTZABAL

Izango dira 20 bat urte saihs- bide baten eskean ziharduela Elgetak. Irailean ez da posible izango, baina urrirako asfalto gaitetik ibili ahal izatea da asmoa. Eibar-Arrasate lotuko dituen biribilgunean dihardute lanean. Gertu dago Salbador kalea oinezkoendako bihurtzea.

Aldundiak jarriko ditu 1.260.276 euroak horrenbeste bider eskatuko saihsbidea egiteko. Horrek herri barruko trafikoa arintzea ekarriko du. Alkateak esan digunez Salbador 1 zenbakiaren parean piboteak jartzea da asmoa. Dendetako kamioiek izango dute

giltza, eta garajeetakoek goiko aldetik sartu beharko dute. Salbador hasieran dagoen lorategi- toxa kentzea ere pentsatua dago.

Oinezkoendako bide berria izango da. Lasao kaletik joanda izango dute beharginek biderik motzera. Lasao kalearen amaieran zebrabide bat izango da eta eskailera batzuk lantegietara joateko. Asmoa da kataitik ahalik eta jende gutxien pasatzea eta oinez- koei bidea erraztea Lasaoatik.

Aparkalekuak murriztu egingo dira kiroldegian, eta biribil- gunetik ezingo da sartu zuzenean. Irtenbide baten pentsatzen dihardute eta posible da Pagatzatik bueltan bide bat zabaltzea berriz kiroldegira gerturatzeko autoz.



Biribilguneak aparkalekuak kenduko ditu. Hala ere, aztertzen ari dira Pagatzatik bueltan sartu eta 40-50 autorendako lekua egokitzea.

HERRIKO LANAK

Maalako lanak ez ziren hasi abuztuan

I.A.

Abuztuan ez, baina astelehene- an bertan makinak helduko dire- la adierazi digute Udaletik. Maalako parkeak izango duen metro koadro kopurua ez da oso handia izango, baina asmoa da Ber- gara aldetik oinezkoendako gune berri bat zabaltzea. Bergara alde hori beroagoa ere bada, eta par- ke berri horretan jarriko dira aisialdirako elementu berriak: haurrendako ziburuak, banku berriak, ermita txiki bat lehen- go Maalakoaren ordez, oinez- koendako bidea, parkea Urubu- ru aldeko etxeekin lotzeko hel- buruarekin... Aurrerago, txalet

berriak egiten direnean, San Roke osterainoko bidea egotea da asmoa.

Espaloia Kafe Antzokirako bidea ere berriztatuko dute. Atze- an geratuko dira urtebete baino gehiagoan sufritutako harri kok- korrak. Antzokirako bidean zein zoru izango den ez da zehaztu, bai- na lauagoa izango dela esan dute Udaletik.

348.811 EURO

Euro horietatik guztietatik Gipuz- koako Foru Aldundiak 144.988 euro ordainduko ditu. Lanek aza- roan amaituta egon beharko dute, eta horregatik lehenbailehen has- tea komeni da.



Zaldi zuriarekin zer egin?

Zaldi zuri ederra agertu zen Eibarko bidean, arbolari lotuta, abuztuaren 22an. Jabea zein den ezin jakin, eta Udalak batu du. Hori horrela, Jose Arantzabali deitu, eta harrezkero, behi eta ardiekin nahasi dago zaldia, larrean. Inork zaldiaren berri baleki Udalera deitzea izango da onena. Ohituta geunden ikus- ten txakurrak-eta kalean uzten dituztela, baina..../I.A.



O.E.

Intxorta elkartearen ondotik sarrera: Aixola-beheko arkuak jarriko da, arku gotikoa.

LABUR

2.378 euro gastatu dituzte kaleko pintadak kentzen

Elgetako Udaletik eman digu- te datua: 2.378 euro gastatu dira herriko hainbat lekutan egin dituzten pintadak ezabatzen. Bi alditan, bi egun ezberdine- tan egin zituzten pintadak: lehe- nengoan egindakoak garbitze- ko 754 euro gastatu zituzten; bigarrenean egindakoak kentze- ko, 1.624 euro ordaindu behar izan zitzaaien garbiketa enpresakoei.

Pintadak kendu dituzte kul- tura etxean, frontoiaren buel- ta guztian, trafiko seinaleetan, Salbador 19an, Karabietan...

'Cocidito': 700 lagunek ikusiko dute Espaloian

Antolatzaileek harrিতuta egin digute berba: "Bagenekien entzutetsua zela, baina horrenbestearino... Aukera emango dugu sarrera barik daudenek ere ikus dezaten. Egongo da zirrikituren bat irrati esatariek famatu egin duten lana ikusteko".

Antzezlan 20:00etan eta 22:30ean izango da. Hain jus- tu, 700 lagun inguruk ikusiko dute. Antolatzaileek esan dute hurrengo asteetarako antzer- ki-sarrerak erosteko aukera egongo dela, sarreran.

Koldo Erostarbek Eibar taldean jardungo du

Eibarko kapitain Iban Fagoa- gak igo zuen lehen taldera azke- nengo aldiz harrobitik. 2002ko hartatik Erostarbe dugu harro- biak emandako azken fruitu- a.Prentsaurrekoan adierazi zuenez, pozik dago igo izanaz eta bere erronka hori zela aitortu ondoren ametsa bete da due- la gaineratu du: "Orain, eutsi egin behar diot mailari". Aste- leheneko Goienkariak elka- rrizketa luzea egingo dio hurrengo zenbakian.

OSMA
PIEZEN AUKERATZEA ETA EGIAZTATZEA

Salbador kalea 19 behea • 20690 ELGETA
Tel.: 943 768 127
Mobila: 677 032 739

Aperribay, s.l.

Marmoldegi
eta granitoak

Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21
20690 ELGETA

Oñati

OÑATI / Egubakoitza / 2005eko irailaren 2a / 17. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oihana Elortza • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 25 05 02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta elektronikoa: oinati@goiena.com • Lege gordailua: SS482/05

Bidebarrietan dago orain Udal Euskaltegia

OIHANA ELORTZA


Errekalde utzi eta Bidebarrieta 18an ekingo dio ikasturte berriari udal euskaltegiak. Urrian hasiko dituzte klaseak, baina matricula epea zabalik dago jadanik. Irailaren 20a arte eman dezake izena bertan euskara ikasi nahi duen edozeinek.

Uztailean egin zuten trasladoa. Lanerako materiala jaitsi zuten orduan Errekaldetik Bidebarrietara: ordenagailuak, liburuak, hiztegiak eta hainbat mahai, esaterako. Liburutegi zaharreko apalak eta lehengo barnetegiko armairuak ere aprobe txatu dituzte gelak hornitzeko.

Klaseak emateko hiru gela, irakasle gela, idazkariarena eta auto-ikaskuntza gela ditu euskaltegiak. Irakasleak Roberto Altuna, Koldo Zumalde eta Xabier Azkarate izango dira eta idazkaria, berriz, Beatriz Etxeberria.

ESKAINZA HANDIA

Maila guztietan erakusten dute euskara Bedita Larrakoetxea euskaltegian. Euskalduntze eta alfabetatze klaseez gain, EGA mailakoak ere ematen dituzte. Horiez gain, talde bereziei zuzendutako ikastaroak ere ematen dituzte. Adibidez, dendariei, etorkinei edo Oñatiko euskararen hobeto idatzi eta hitz egin nahi dutenei.



Bidebarrieta 18n dago orain Udal Euskaltegia, Laixan elkartearen ondoan.

Enpresetan ere ematen dituzte klaseak, Fagorren, adibidez.

LOKAL BERRIA

Eraikin berri horrek 360 metro koadro ditu eta euskaltegiak era-

biliko dituen gelez gain badaude beste bi: edozein taldek bilerak egiteko gela da bata, eta bestea herriko lau taldek erabiltzen dute: Txandak, Appalde-k, Artzain Txakur Elkarteak eta Filateliak.



ROBERTO ALTUNA /EUSKALTEGIKO ZUZENDARIA

"Hemendik aurrera jendeak ez dauka galdetu beharrik euskaltegira joateko"

Zer iruditzen zaizu egoitza berria?

Oso ederra da. Errekalden baino leiho gutxiago ditugu, bistak ez dira hain politikak, baina gela handiak eta erosoak ditu. Eta kalean gaude.

Bukatu duzue trasladoa?

Bai, uztailean egin genuen. Paretak zuri daude oraindik, baina apainduko ditugu horiek ere. Errekalden genituen argazki, egutegi, mapa

eta poster guztiak ekarri ditugu egoitza berrira.

Zer abantaila ematen du Bidebarrietako egoitza berri horrek?

Batez ere, kaleko jendearengandik hurbilago gaude. Lehen galdetu egin behar zuten euskaltegia non zegoen jakiteko. Orain, berriz, kalean gaude, jendearengandik gertu. Abantaila hori nabaritutuko dugula uste dut.

Zenbat ikasle izaten dituzue, gutxi gorabehera?

Maila askotako talde ezberdinak izaten ditugu. Joan den urtean, adibidez, guztira, 135 ikasle izan genituen.

Zer egin behar du euskara ikasi nahi duenak?

Hona etor dadila eta gure eskaintza azalduko diogu. Telefonoa eta e-posta betikoa ditugu: 943-78-24-96 eta oinatu@euskalnet.net.

LABUR

Parisera eta Errioxara bidaiak antolatu ditu Pake Lekuk irailerako

Bi bidaiak antolatu ditu Pake Lekuk irailerako: Parisera eta Errioxara. Parisera irailaren 12tik 16ra joango dira, eta oraindik badaude tokia. Datorren egunean, irailak 7, batzarra egingo dute Pake Lekun, 18:30ean, Parisera joango direnendako. Bestalde, irailaren 19an, Errioxara egingo dute bidaiak. Pake Lekun bertan eman behar da izena. Hauxe izango da denboraldiko azken irteera. Udaberrik aurrera antolatuko dituzte bidaiak gehiago.

San Lorentzo jaietako zozketako saridunek urrira arte dute saria jasotzeko epea

Hauexek dira San Lorentzo auzoko jaietako zenbaki sarituak: 1.- 2537, bi lagunendako asteburuko egonaldia bainuetxe baten; 2.- 350, bi gazta eta sei txakolin botila; 3.- 2818, urdaiazpikoa eta erre serbako sei botila ardo. Saridunek jai batzordeko kideekin jarri behar dute harremanetan. Sariak jasotzeko epea urriaren 18an bukatzen da. Bestalde, datorren egunean, irailak 8, Atzeko kaleko jaiak hasiko dira.

SOINU PAISAIK

Soinuen 'eromeria' egin dute Arantzazun

O.E.

SPAPS, Soinu Paisaiak Arantzazun Paisaia soinuak, eguna egin zuten joan den zapatuan Arantzazun. Musika instrumentuak eta naturaren soinuek bat egitea zen egunaren helburua, entzumenaren lantzea. Musika instrumentuak eskuan zituztela, Sindikatik Iturrigorriara abiatu ziren

30 bat lagun, pentsalariak, eskultoreak eta poetak tartean.

'EROMERIA'

Gandiagaren poemak ulertzeko geldialdiak egin zituzten bidaiak eta Iturrigorri, albokak, txakrolak, ordenagailuak eta beste instrumentuak atera eta eromeria egin zuten: soinuak entzun eta eurekin gozatu.



Iturrigorriko zelaietan bat egin zuten musika instrumentuak eta naturaren soinuek

Ariznoa gimnasia erritmiko taldea




Irailaren 19an gimnasia erritmikoko denboraldia hasiko da. Kirol polit honetan interesatuta dauden 4 urtetik gorako neskek, dei dezatela telefono honetara informazioa jasotzeko: 943 76 56 75 (Jabi).

Klaseak BERGARAN:

Hasierako maila I: 4-5-6 urtekoak. Eguazten eta egubakoitzetan 17:00etan
Hasierako maila II: 7 urtekoak. Eguazten eta egubakoitzetan 17:45ean
Benjaminak: 8-9 urtekoak. Astelehenetan 18:00etan eta eguaztenetan 18:30ean
Lekua: Boni Laskurain pasealekuko Aranzadi ikastolako gimnasioan

Klaseak ANTZUOLAN:

Martitzenetan 16:30ean eta eguaztenetan 14:30ean



Aupa neskek, anima zaitetze! Zuen zain gaude!

Udal Euskaltegira goaz. Bazatoz gurekin?



2005/2006 EUSKARA IKASTAROAK

Eskaintza: EUSKALDUNTZE maila guztiak ALFABETATZE, EGA, eta EGATik gorakoa.

Egokitutako taldeak: gurasoak, merkatari, etorkin, enpresa, Bergara euskara, etb. Multimedia gela.

Azterketak prestatzeko: EGA eta HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK. HABEren diplomak ateratzeko azterketa euskaltegian bertan.

Erritmoak: Bi ordukoa (iraila-ekaina) /hiru ordukoa (iraila-ekaina) / bost ordukoa (iraila-otsaila edo otsaila-ekaina) / asteen bi egunetan bi ordu eta erdi (EGA).

Eskarien arabera, beste erritmo batzuk ere eskain daitezke.

Bulego ordutegia: 8:30-13:30 /14:30-18:30 ostiraletan: 8:00-15:00

16 urtetik gorakoentzat

Bekatzeko sistema eta diru laguntzak ditugu

MATRIKULA ZABALIK

24 urte euskara ikasten
Maila guztiak
Ordutegi zabala
Bekak/ HABE-ren diplomak...

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA
Zabalotegi, 13 | 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 44 53
berg.eusk@udal.gipuzkoa.net
berg.euskudal@euskalnet.net



www.udaleuskaltegiak.net

Eskaintza ona bada EZ GALDU AUKERA

Iraila eta Urria

ESERLEKUEK
KONFIRMAZIOA BEREHALA

BALEARRAK 8 egun / 7 gau

	IRAILA	URRIA
MALLORCA		
CLUB LAGUNA BELLEVUE APT. ²⁰ oc. 4 pers.	OB 248	-
SAGA H. **	ME 259	-
BAHAMAS H. ***	ME 333	-
DELTA H. ****	ME 357	-
OFERTA RIU ****	ME 455	-
MENORCA		
CISNE BLANCO APT. ²⁰	OB 219	-
BINIBECA CLUB EST. ²⁰ oc. 3 pers.	OB 279	-
ACORN ALMIRANTE FARRAGUT H. ***	HG 455	-
EIVISSA		
CENTRAL PARK APTU. ¹⁰ oc. 4 pers.	OB 217	-
PISCIS PARK H. **	ME 298	-

KANARIAK 8 egun / 7 gau

	IRAILA	URRIA
TENERIFE - PTO DE LA CRUZ		
VALLE LUZ APT. ²⁰	HD 285	240
PANORÁMICA GARDEN APTH. ***	ME 325	290
INTERPALACE H. ****	ME 410	359
SEMÍRAMIS H. *****	ME 491	420
TENERIFE HEGOALDEA		
FIESTA OASIS PARAÍSO H. ***	ME 385	305
SOL PRINCESA DÁCIL H. ***	ME 407	331
H10 LAS PALMERAS H. ****	ME 497	462
LANZAROTE		
ROCAS BLANCAS APT. ²⁰ oc. 4 pers.	OB 304	263
LAS GAVIOTAS APT. ²⁰ oc. 3 pers.	OB 318	278
PARADISE ISLAND APTH. ***	GB 499	470
KANARIA HANDIA		
BALI FLOR APT. ²⁰	HG 333	297
BUENAVENTURA H. ***	ME 484	448
RIU WAIKIKI H. ***	GB 516	480
FUERTEVENTURA		
COSTA TROPICAL APT. ²⁰ oc. 3 pers.	OB 328	-
TOFIO H. ***	GB 455	-

KOSTAK %30 erainoko DESK.
UMEAK DOAN

KOSTAK

	IRAILA	URRIA
BRAVA ROSAS		
SAN MARC H. ***	ME 34,47	23,17
CORAL PLATJA H. ****S	ME 44,04	29,88
BRAVA TOSSA DE MAR		
DON JUAN H. ***	ME 27,68	19,40
MAREME SANTA SUSANA		
ALHAMBRA H. ***	ME 22,68	14,57
CAPRICI VERD H. ****	ME 25,86	20,58
DORADA SALOU		
CALIFORNIA GARDEN H. ***	ME 28,68	20,32
SOL COSTA DAURADA H. ****	ME 38,03	25,00

DESK. BARNE

EUROPA eta Afrika Ipar. 8 egun / 7 gau

	IRAILA	URRIA
BUDAPEST		
VENTURA H. ***	HG 466	-
ASTORIA H. ****	HG 631	-
BUDAPEST ETA PRAGA H****	HG 499	-
PRAGA		
SPLendid H. ***	HG 399	-
OLIMPIK I H. ****	HG 519	-
PRAGA ETA BUDAPEST H****	HG 514	-
ISTANBUL		
BIRBEY H. ***	HG 346	-
TUNISIA		
IBEROSTAR LIDO H. ***	HG 374	-
HAMMAMET AZUR PLAZA H. ****	ME 391	-

KARIBEA 9 egun / 7 gau

	IRAILA	URRIA
PUNTA CANA		
IBEROSTAR DOMINICANA H. *****	GB 799	911
IFA BÁVARO VILLAGE H. ****	GB 816	780
GRAND PARADISE BÁVARO H. ****	GB 844	844
NATURA PARK H. *****	GB 921	921
FIESTA BEACH DELUXE H. *****	GB 945	938
CATALONIA BÁVARO BEACH H. *****	GB 850	850
CANCUN		
MAYA CARIBE H. ****	GB 959	959
RIU CANCÚN H. *****	GB 1065	1026
MAIA ERIBERA		
CLUB MAEVA H. ****	GB 925	895
RIU LUPITA H. *****	GB 950	950
CATALONIA YUCATÁN BEACH H. *****	GB 1000	979
IBEROSTAR PARAISO BEACH H. *****	GB 1129	1107
LA HABANA		
GRAN CARIBE RIVIERA H. ****	HG 777	777
GRAN CARIBE PLAZA H. ****	HG 867	853
VARADERO		
GRAN CARIBE KAWAMA H. ****	GB 918	918
RIU LAS MORLAS H. ****	GB 952	934
HABANA/VARADERO		
COPACABANA/GC KAWAMA H. ****	HG/GB 871	871

Azken orduko eskaintzak

LANZAROTE 8 egun / 7 gau	Irailak 4
ROCAS BLANCAS APT. ²⁰ oc. 4 pers.	OB 240
ROCAS NEGRAS APT. ²⁰ oc. 4 pers.	OB 270
EIVISSA 8 egun / 7 gau	Irailak 8
CENTRAL PARK APT. ¹⁰ oc. 4 pers.	OB 193
SIRENIS CORAL PLAYA H. ***	ME 338
KANARIA HANDIA 8 egun / 7 gau	Irailak 3
BALI FLOR APT. ²⁰ oc. 3 pers.	OB 254
GLORIA PALACE SAN AGUSTÍN H. ****	HG 414
MADEIRA 8 egun / 7 gau	Irailak 7
SANTA MARIA H. ***	HG 426
D'AJUDA STAR APT. ****	HG 452
TUNISIA 8 egun / 7 gau	Irailak 2 eta 9
IBEROSTAR LIDO H. ***	ME 345
HAMMAMET AZUR PLAZA H. ****	ME 362
PUNTA CANA 9 egun / 7 gau	Irailak 3 eta 4
IFA BÁVARO VILLAGE H. ****	GB 720
OFERTA RIU H. ****	GB 760
PUERTO PLATA 9 egun / 7 gau	Irailak 6
RIU MAMBO H. *****	GB 649
FUERTEVENTURA 8 egun / 7 gau	Irailak 7
COSTA TROPICAL APT. ²⁰ oc. 3 pers. ³⁰	OB 200
COSTA TROPICAL APT. ³⁰	OB 222

Eskaintza gehiago:
www.viajesiberia.com
Egin erreserba!

**IRTEERAK
BILBOTIK**

Irteerak Bilbotik Karibera izan ezik; hori Madrildik. Prezioak pertsonako logela bikoitzean aurretik aipatutako erregimenean. Irailako eta urriko irteera konkretuentzat bakarrik. Kostak: iragartzen diren prezioek deskontua barne dute, garralao ez dago barne, kontsultatu gutxieneko egonaldia zenbatekoa den. Karburantearen igoera, tasak, bisa eta gestio datuak ez daude barne. Janari-erregimena: OB: Ostaturak bakarrik HG: Hotela eta gosaria; ME: Mantenu erdia, MO: Mantenu osoa, GB: Guztia barne. Prezio zuzenak tipografiako akatsik egon eztean. ESERLEKU MUGATUAK.

ZURE OPORRENGATIK EGIN DEZAKEGUN GUZTIA EGIN EGITEN DUGU.

VIAJES IBERIA

902 108 108

PREZIOA BAINO ASKOZ ERE GEHIAGO...

